



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-01-13**

VIURTEA 1.335.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO


«AHT gelditzeko» hilaren 26an manifestaziora deitu dute

TOLOSALDEA Hainbat talde eta elkarteren atxikimendua izan du ekimenak; Tolosan egingo dituzte ekitaldi guztiak

SALAKETA Gogor salatu nahi izan dute «eztabaida desbideratzeko abiarazi duten intoxikazio kanpaina» 7

Miguel Angel Alvarezen lanak ikusgai daude Koldo Mitxelenan

TOLOSA Erakusketako artelan guztiak biluziak dira; otsailaren 2ra arte dago Ganbara aretoan 4



Miguel Angel Alvarezen erakusketako artelan bat. HITZA



Zenbait herritar hurbildu zen atzo ate irekien jardunaldietara. NEREA URBIZU

BOLUNTARIOEN BILA ABEGI ATEAK IREKITA

TOLOSA Etxerik gabekoen zentroak jendea behar du bertako lanetarako; atzokoan hainbatek sinatu zuen laguntza eskaintzeko 6

Espektakuloa mesedez!



» Uzturretik

Joxi Imaz

Gogoratu dezagun 2007. urtean gure eskualdean gertatutakoa. Gatazka politikoa konponzeko saiakera berria ez da ondo

atera. Estatuak euskal erresistentzia gogorrenari egurra ematen jarraitzea erabaki du: ilegalizazioa, kartzela, tortura... 18/98 prozesua-ren barnean adibidez, Tolosan jaiotako Mario Zubiaga «desobedientzia zibila» bultzatzeagatik zigortu dute. Arazoa ez al ziren ba pistola eta bonbak?

Eskualdeko hiriburuan, EAJk gehiengo osoa lortu zuen udaberriko udal hauteskundeetan. Salbuespena izan da, orokorrean emaitza txarrak izan baititu partidu honek Gipuzkoan. Arrazoiak?

*Bildarratz fenomeno*a aipatzen dute askok. Formula? Gaur egungo politika eta gizartearen klabeak ezagutu eta erabiltzea. Hona hemen klabe horietako batzuk: (1) Itxura fisiko *ona* duen lider bat bilatzea: gaztea (50 urte baino gutxiago), triparik gabea, burusoila ez dena, betaurrekorik gabea... Begiratu inguruan: Zapatero, Sarkozy, Blair, Gordon Brown, Bush... (teoria honen arabera Rajoiak ez ditu martxoko hauteskundeak irabaziko) (2) Propaganda asko egitea: egunkarietan etengabe liderraren irudia saltzea, kale-

an ibiltzea gertutasun sentsazioa emateko, etengabe boterearen aldeko albisteak zabaltzea, nahiz eta ez izan erabat *egiazkoak* (begira adibidez zenbatetan hitz egin diguten Voith-Gorostidi auzo berrari buruz. Ba eraikiko diren 743 etxebizitzetatik, azkenean 148 izango dira babes ofizialekoak (%20). Eta nire informazioaren arabera, tasatuen prezioa ez da agintariak errepikatzen ari diren 24 milioi pezeta, baizik eta 30etik dezentegora) (3) Gure gizarteak joerak jarraituz (aisialdia, turismoa, kontsumoa, ikuskizuna edo espektakuloa...), urtea etengabeko festa sentsazioa emanaz antolatzea: Txuleta Festa, Arrautza Festa, Feri Berezia...

Azpitarratzekoa iruditzen zait baita ere politikoen soldatekin gertatutakoa. Hauteskunde ondorengo lehenengo plenoan, lau kontzejal liberatzea erabaki zuen Tolosako udal gobernu berrari. Liberatu hauekako bakoitzak 8 milioi pezeta irabaziko ditu hurrengo urteetan (eta beste batek, liberazio erdi bategatik, 3 milioi). Bitartean, larunbatetako ferian bezeroei ematen dizkieten plastikozko poltsak ordaindu egin behar izaten dizkiote base-erriarrek udal txeari.

Propaganda ofizialak dioena zalantzan jartzen hasi nahi baduzu, urtarrilak 26an Abiadura Handiko Trenaren aurka egingo den manifestaziora azaldu.

L Laburrak

Errealeko futbolari beteranoak etzi, Usabalen

TOLOSA • Etzi, 19:30ean, Usabalgo futbol zelaian Errealeko futbolari beteranoak entrenamendua egingo dute. Talde hau, Usabalen jokatuko den, futbol Indoor txapelketan parte hartuko du. Txapelketa honetan Espainako Liga irabazi duten 9 taldeak ariko dira. Usabal Errealeko partiduen egoitza izango da.

Adimen emozionalari buruz hitzaldia Orixen

TOLOSA • Emozioak eta adimen emozionala hitzaldia izango da Orixen Institutuan, ostegunean, hilaren 17an. 19:00etan hasiko da hitzaldia, eta Institutuko e-gelan izango da.

Bizkarrezurreko arazoan inguruko hitzaldia

ALBIZTUR • Michel Marmier mediku kiropraktiko ezagunak hitzaldia eskainiko du heldu zein gazteen-tzat zuzenduta bizkarrezurrean ematen diren arazoan inguruan. Ostegunean, hilaren 17an izango da, 18:00etan, Kultur Etxean.

Sahararako janari bilketa kanpaina martxan da

TOLOSALDEA • Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bultzatuta abian da Tolosaldeko herrietan sahararrei laguntzeko janari bilketa kanpaina. Aurtengoan, dilistak, arroza, hegaluzea, azukrea eta konpresak utzi beharko dira. Kultur Etxean eta udaletxeetan utzi ahalko dira jakiak.

S Soka motzean

«Jendeari, orohar gauza berriak ez zaizkio gustatzen, nahiago dituzte betiko jakiak erosi»

MARI JOSE MUJIKA

Mujika aurrez gertatutako jakien dendako nagusia

ERREDAKZIOA

Duela 25 urte inguru hasi ziren Mujika dendan aurrez prestatutako jakiak saltzen. Bertako nagusia da Mari Jose Mujika (Tolosa, 1963).

Zein janari da gehien saltzen dena?

Oilasko errea.

25 urte inguru daramatzazue lanean, diferentzia nabari al da?

Bai, orain askozaz ere jende gehiagok erosten ditu aurrez prestatutako jakiak.

Zergatik uste duzue jendeak horrelako jakiak erosten dituela?

Erosotasunagatik, hemen saltzen direlan denbora eta lana eskatzen duten jakiak baitira.

Zergatik dela uste duzue, denbora faltagatik edo alferkeriagatik?

Nire ustez alferkeriagatik.

Zuk, etxean prestatutako janaria edo hemen sukaldatutakoa jaten duzue?

Hemen bazkaltzen dut, beraz bertan prestatutakoa.

Hemen eskaintzen dituzuen jakietatik zein aukeratuko zenuke?

Niri pasta asko gustatzen zait.

Jende asko al dago egunero edo etortzen dena?

Bai, asko ia egunero etortzen dira.

Zein jaki mota prestatzen dituzue, betikoak edo berritzaileak?

Jendeari gauza berriak ez zaizkio gehiegi gustatzen, nahiago dute betikoak.

Eta zuri, gustatzen al zaizu gauza berriak prestatzea?

Bai, baina haserretu egiten naiz, gero ez baitira saltzen.



NEREA URBIZU

U Urteurrena

II. urteurrena
KARLOS FDZ DE GOBEO ARAKISTAIN
'IARRA'

Beti gurekin, beti ondoan

Arruti-Arakistain sendiak ez zaitu ahaztuko

Santi, Angelés, Maite, Juan Angel, Itziar, Itxaso, Unai, Ainhizeta Lere

ZARAUTZ
2008ko urtarrilaren 13a

Urteurren elizkizuna Arroa Goian, IGANDEAN, 10:30ean

H Hilberria

JESUSA MAULEON ZABALZA
ANDREA

Urtarrilaren 12an hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere senarra: Juan Jose Agirre Aizpurua; seme-alabak: Jesus M. eta Nekane Mujika, Edorta eta Magi Cadarso. Tito eta Maite Uzkudun, eta Juantxo; biola: Maule; ezkon anai-arrebak: Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde etoiz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela BIHAR ASTELEHENA, arraisaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Euskal-Herria, 3-4.
OHARRA: Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, astelehen goizeko 10:30ak arte.

TOLOSA
2008ko urtarrilaren 13a

JESUSA MAULEON ZABALZA

Gure ilusio, sufrimendu eta ametsetan bidelagun izan zaitugulako muxu bat eta eskerrik asko.

TOLOSA
2008ko Urtarrilaren 13a

Tolosako ezker abertzalea

B Blogteka info

'Eklipsea'

«Eklipsea. Han ageri zen, esan zuten bezala, eta une hori gogoangarriago egin zen, nola ahaztuko nuen? Eguna gau bilakatu zen. Oinez jarraitu eta erori egin nintzen. Odola eskuetan eta iragana lausoturik nuen. Nola ahaztuko nuen galdera bakarrik gogoratzen nuen. Baina nola ahaztu? Zer ahaztu? Nor ahaztu? Dena ahaztu nuen, ahaztu hitza izan ezik. Odolaren azpian azal iletsua sentitu nuen mingain lantzarekin. Eklipsearen argi apala handiegia zen gaueko lau hankatako izaki honentzat eta nora jo ez nekien... Eklipse amaieraren argiak ordea, bidea erakutsi zidan. Ahaztu nuen ahaztuezinezko zeraren bila abiatu nintzen lau hanken gainean saltoka. Odolak odolagarria piztu zidan eta eklipse amaieran etxola bat erakutsi zidan. Hori ote zen ahaztu nuena, gosea? Gose nintzen? Baina nola asetu nire gosea? Hori ez nuen gogoratzen, baina etxola horretara bideratzen ninduen nire senak. Zertara ordea? Beldurra sentitzen nuen... Senaren menpe, etxolara iritsi nintzen. Atea zabalik zegoen eta nire oina barnera sartu zen, on-



doren burua. Begiak azti, zerbaiz ikusi nuen: Eklipsea! Dena ulertzen hasi nintzen. Ez nintzen nire buruaren jabe. Ez zitzaidan hau lehenago gertatu. Nola zen posible? Nire aitona aspaldi kontatu zidan zerbaiz etorri zitzaidan burura. Hori ote zen? 'Hiloba. Zerua erortzen denean, (eklipsea) ez irten etxetik. Gela ilunean sartu eta nik esan arte ez irten bertatik'. Hau gogoratu nuen aitona lurrean etzanda zerraldo aurkitu nuenean etxolan. Nire aitona zen, eta besonan neraman odola, berea zen. Dastatu nuen odola ez zen nirea, berea baizik. Mihizkatu nuen oina, beso bilakatu zen. Negarrez hasi nintzen, zergatik gertatu zitzaidan hori niri...».

Blablabla... Azeipuna arizitzaidan kontatzen. Badakit garrantzi-

tsua zela beretzat, baina, niri ez zitzaidan batere gustatzen ari, baina berak kontatzen zuenez... Hain ondo kontatzen zuen, hain ahots ezitia zuen, hain zen ederra... maitemintzen hasia nengoelauste dut.

Kontua zera da, berak ezin zuela inondik inora jakin zer sentitzen nuen. Bestela akabo. Akabo bera, eta akabo ni. Eta hori, ezingo nuen jasan. Gure artekoa nire pentsamenduan soilik eraman nezakeen zerbaiz zela onartu beharra nuen. Duela 15 urte ikusi nuen lehenengoz Maria. Ni opor egunez gozaten ari nintzen kostaldeko herri batean, hirigunetik urrun, egunerokotasuna ahaztu nahian. Momentu horietan munduarekin haserre nengoen. Nekatuta, nazkatuta nire bizitzarekin. Baina berak erakutsi zidan, kexatzen eta mada-rikatzen aritu beharrean, nire bizitzaren jabe izaten ikasi behar nuela. Dizdira eta indar berezia zuen neska zen orduan ere Maria, nahiz eta 19 urte bakarrik izan.

Hitzakin jolasean

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hitzekin>

Sar zaitez eta jarrai ezazu sortzen ari garen istorioarekin! Egin lekua zure irudimenari!

Gehiegikerien ondorioa

» **Iritzia**

Maria Martin

Tolosako Aldem zentroko zuzendaria

G abonetako jai egunetan herri-herrietan gehienok gure elikaduraren oreka galduko genuen ziurrenik, eta honen ondorioz, kiloren bateko beste hartukogenuen konturatu gabe. Honen arrazoia zera da, gastatu dugun energia baino askoz ere jaki gehiago barneratu ditugula, eta hau guztia gure organismoari atxikitzen zaiola gantz moduan.

Bizitza arruntera bueltatzeko antsietate egoerak sor ditzake gurean. Neurri handiago ala txikiagoan, hau guztia oso arrunta da, eta atsedendaldi une baten ostean gure buruari lagun diezaiokugu kilo horiek jeisten era naturalean, pilatutako likidoak kenduz eta gantzze-

tan osasungarria den liseriketa eginez, horrela gure metabolismoari oreka emango diogu.

Behar duguna da dieta eraginkor bat egiten hastea, pilatu dugun gantza eta likidoak kentzeko, eta batez ere, gibelak garbitzeko, giltzurrunen funtzioak hobetzeko eta liseriketa arazoak arintzen lagutzeko.

Nire gomendioa gosatzeko fruta, zumoak eta infusioak hartzea da; bazkarian eta afarian, arroz erdi integrala barazkiekin hartzea, eta otorduen artean, berriz, zumoak, ura edota infusioak. Gure helburua liseriketa garbia egitea da, kafea ez hartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Gomendio hauek astelehenetik ostiralera jarraitzea da gure proposamena. Horrela gehiegikeriek utzi dizkiguten ondorioak arindu ahalko ditugu.



Fruta jatea gomendagarria da.



Kafea ez da batere onuragarria.

K Komikia

Gorka Salaberria



Tolosako Miguel Angel Alvarezen marrazkiak eta mihiseak jarri dituzte Koldo Mitxelena Ganbara aretoan; erakusketa osatzen duten artelan guztiak biluziak dira.

Margolanak, larru gorritan

RAUL PEREZ (IRUTXULOKO HITZA)

Miguel Angel Alvarez margolariaren erakusketa dago ikusgai Koldo Mitxelena Ganbara aretoan. Alvarezen 51 marrazki eta zazpi lienzo jarri dituzte. Artelan guztiak dute zerbait komunean. Biluzik dira denak, 70ko hamarkadatik hona egindakoak. Bere lanak ikusteko otsailaren 2ra arte izango da aukera.

Tolosan jaiotako artistak ez du oso gogoko beren lanak erakustea, eta hori dela eta Koldo Mitxelena jarritako erakusketaren garrantzia nabarmetzen du Franxix Lopez Landatxe kulturuneko zuzendariak. Koldo Mitxelena kaleratutako liburuxkan ageri denez, aurretik beste zazpi erakusketak egin ditu Donostian 1953tik hona. Aranas Darras -bitan-, Barandiaranen, El Pezen, Echeberrian, Expon, Edergintzan eta San Telmon erakutsi ditu bere obrak aurretik Donostian.

Zegatik aukeratu dituzten artistaren biluziak azaltzen du Landatxek: «Urtetan zehar bere lan ildo garrantzitsuenetakoa izan da, nahiz eta paisaiak ere landu dituen».

Estudioa tokiz aldatzea bezala

Gala Alvarez Miguel Angel Alvarezen alaba oso pozik azaldu da erakusketarekin. «Bere estudioa tokiz aldatzea bezala izan da, margolanek ez baitute ez markorik ez ezer». Aitaren izaeraz ere hitz egin du: «Bat batean margotzen du, eta bere buruarekin pozik egoteko margotzen du, ez erakusteko». Lanen aukera ere, hein batean, batbatekoa izan dela dio alabak.

Miguel Angel Alvarezek 50. hamarkadan hasi zela biluziak margotzen eta urte asko eman dituela modelo berarekin nabarmetzen du alabak. «Hori zaila izaten da.

»FITXA

■ **Izenburua.** Miguel Angel Alvarez, Biluzik 1970-2000.

■ **Edukina.** 51 marrazki eta zazpi mihise.

■ **Data.** Otsailaren 2ra arte.

■ **Orduetgia.** Asteartetik larunbata arte, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

Modeloak ez du zertan polita izan; benetan garrantzitsua dena da posatzen jakitea naturaltasun osoz».

Donostia eta Paris

1927an jaiotako Miguel Angel Alvarez Tolosan, eta 36ko Gerra ondorengo urteetan, Ascensio Martiarenaren altxoan eta Donostian egiten zituzten artista gazteentzako lehiaketetan hezi zen margolari gisa -zenbaitetan saritu zuten-, beti ere Parisera begira.

Besteak beste, Chummy Chumez, Jose Luiz Zumeta eta Rafael Moño eta Pablo Gargallo artistak ezagutu zituen Parisera egindako bidaietan.

ANTIGUAKO SAN SEBASTIAN MARTIRI IRUDIKATU ZUENEOA


Koldo Mitxelena jarritako erakusketaren harira kaleratutako liburuxkan Jorge Aranguren idazlearen pasarteak ageri dira. Haietako batek harreman estua du Donostiarekin, Miguel Angel Alvarezek Antiguako San Sebastian martiri elizaren barrualdea margotu zueneko. Miguel Angelek Parisen ezagutu zuen postkubismora daramaten formak dira, baina beti artistaren ezaugarria, haren nortasun jatorra gorde dutenak. Hain zuzen ere, Matia kaleko eliza horretatik gertu bizi da margolaria.



Bat batekotasuna da Miguel Angel Alvarezen ezaugarrietako bat.



Ekzerrean, Miguel Angel Alvarezen marrazkietako bat ikus dezakegu, eta eskuinekoa, berriz, bere buruari eginiko erretratua da.



Paisaiak ere margotu baditu ere, biluziak dira Miguel Angel Alvarezen lan ildo nagusia.

txokoa
h

2 sarrera pare

irabazleak:

- Malentxo Arrospide (Lizartza)
- Geno Otamendi (Alegia)

Urtarrilak 14, astelehena • 16:00etan
Tolosako Beotibar pilotalekuan



aspepelota.com

Galarza V - Galarza VI
Aritz Lasa - Nalda III

|||||

BENGOETXEA VI - PATXI RUIZ
EUGI - LASA III

|||||

Uriarte - Merino I
Cabrerizo - Apeztegia

Mankomunitateak zaborren bilketa-sistema bateratu du



Edukiontzia berriak izango dira herri guztientzat. HITZA

Gizartea »Edukiontzia berriak izango dira, eta besteen artean, maiztasun gehiagorekin bilduko dituzte zaborrak.

tziak bilduko diren. Aldaketa hauek guztiak Udalekin aztertu eta adostu dira. Edukiontzien kokaleku berri hauek www.tolosalde.org webgunean eta Udaletan

konsultatu ahal izango dira behar izanez gero.

Bilketa ere maizago egingo da. Hortaz, eskualdeko herri handie-

netan, zaborra egunero bilduko da, baita jaiegunetan ere. Gainerako herrietan, astean bitan edo bostetan bilduko dute zaborra, herriko

biztanle kopurua kontuan harturik.

Era berean, paperen eta ontzien bilketa ere maizago egingo da. Biztanle gutxiako herrietan, berriz, paperaren eta ontzien bilketa bikoiztu egingo da, eta astean behin bilduko dira.

Bestelako bilketa

Tolosaldeko Mankomunitatearen zerbitzu berri honek altzarien bilketa bermatzen du udalerrri guztietan. Altzarien eta traste zaharren bilketaren maiztasuna (gehiagotan hemendik aurrera) eta bilketa eguna ere zehaztu dute herriz herri.

ERREDAKZIOA

Joan den irailean, Tolosaldeko Mankomunitateak zaborrak biltzeko zerbitzu amankomun bat martxan jarri zuen eskualdeko 28 udalerrietan. Udal bakoitzak orain arte ematen zituen zerbitzuak bildu nahian, Tolosaldeko Mankomunitateak bilketa-sistemak bateratu eta «kalitatezko zerbitzua» eskainiko du: «erosoa, eraginkorra, garbia eta erabilerraza». Zerbitzuaren kudeaketa Zerbitzu Elkartea eta Fomento de Construcciones y Contratas enpresek osatutako aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu zaio.

Orain arte, edukiontzietan eta ibilgailuetan inbertitu dute. Hartara, Albizturren, Ikaztegiaren eta Lizartzan hasi den bezala, bilketa zerbitzuko edukiontzien eta ibilgailuen parke guztia berrituko dute datozen asteotan.

Edukiontzia berriak

Edukiontzia berri gehienak albo-kargakoak izango dira eta edukiontzia-errekiko paralelo jarriko den ibilgailu robotizatu batek automatikoki hustuko ditu eskuin aldetik. Bilketako sistema berri hau tradizionala baino azkarragoa ez ezik, isilagoa da, edukiontzia ez baita arrastaka eraman behar. Albo-kargako zabor edukiontzia edukiera handiagoak dira.

Dena den, leku batzuetan, bertako ezaugarriak direla eta, ezin dira albo-kargako edukiontzia jarri, eta horrelakoetan, atzeko kargako edukiontzia tradizionalen bidezko bilketa sistemari eutsi diote.

Alboko eta atzeko kargako edukiontzia berriak erosoagoak dira zaborra botatzeko, estalkia irekitzeko pedal bat baitute.

Halaber, papera eta ontziak biltzeko iglu motako edukiontzia tradizionalen ordez, albo-kargako edukiontzia jarriko dira.


Bilketa guneen berrantolaketa

Batzuetan, bilketa-gune batzuk aldatu behar dira, izan ere, albo-kargako edukiontzia kamioiari paralelo daudenean soilik hustu daitezke. Zaborra biltzeko guneak zehazterakoan, hondakinen birziklatzea kontuan hartu da, eta horretarako, isleta batzuk sortu dira, non zaborra, beira, papera eta on-

Ni Gipuzkoa naiz.

Guztiok gara Gipuzkoa.
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

2007/2011 Kudeaketa Plana



 **GIPUZKOA**
zurekin, aurrera >



«Batzuk 11 etxe, eta besteak zubipean»

TOLOSA • Etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko asmoz, Triangulo plazako arkupea egongela balitz bezala irudikatuz, trasteak ipini zituzten atzo Sanblaspeko Gazte Asanbladakoek. Bertan, «zuek 11 etxebizitza eta gu zubipean» esaldia ipintzen zuen kartelak jarri zituzten. Hau dena, Zarautzen atzo egin ziren mobilizazioekin loturik zegoen. Euskal Herriko gaztetxe, gazte asanbladek eta etxebizitza mugimenduek etxebizitza eskubidea aldarrikatu baitzuten atzo. **NEREA URBIZU**



Xurдинen azken abenturak Leidorren

TOLOSA • Xurдин ipotxaren azken abenturak ikusteko aukera izan zuten atzo Tolosako hauerrek Leidor antzokian. Eta argi geratu zen, beste behin ere, Xurдин txikiak gaztetxoeren maitasuna berenenganatu duela. Kontzertu handienaren pare, jendez lepo izan zen Tolosako antzoki eraberritua. Xurдинen basoan, Alaitasunaren Basoan hain zuzen, dena erraldoia den horretan dago kokatuta Xurдин eta Gorringo lakuaren misterioa, Sointek produkzio-etxearen azken istorio hau. **ESTIEZEIZA**

Altunak I.ak ezin izan du Faustinoko txapela etxeratu

Amezketeta » 40-26 galdu zuten berak eta Etxeberria III.ak atzo, Galarretan, Urriza eta Lizasoren aurka jokotutako finalean

ERREDAKZIOA

Altuna I.ak ezin izan zuen txapela eskuratu atzo jokotutako finalean. 40-26 emaitzarekin bukatu zuen partida Etxeberria III.aren bate-ra. Galarretan galdu egin zuen bikote honek, Urriza-Lizasoren aurka. Lehenengo zatia oso borrokaria izan zen, baina txapeladunek alde aterazi zuten eta azkenean mantenduz, Faustino Txapelketa handia eskuratu zuten. Amezketarren 8. finala izan zen atzokoa, eta galdu zuen zazpigarrena.

«Besteak oso ondo aritu dira», esan du Altuna I.ak. «Beraiek gehiago izan dira eta zori ondu beharrean nago. Tanto batzuetan gure jokoa eman dugu, eta ahalegi-

nak egin ditugu beraiek harrapatzeko baina ezin izan dugu lortu». Amezketarren partida amaitu ondoren azaldu bezala, ilusioz eta irabazteko itxaropenarekin joan zen finala jokatzera, baina ez zen posible izan.

Erritmo izugarriarekin atera ziren Urriza eta Lizaro kantzara, eta 10-11 tantora arte norgehiagoka parekatua izan bazen ere, gero hauek aurre hartu zuten eta ezin izan zioten bueltarik eman aurkariek.

Urriza duela hamaika hilabete hari ziren erremonite munduan jokatzen eta dagoeneko txapela bat eskuratu du. 39 urteko amezketarren esanetan, «joku maila handia hartu du Urrizak denbora honetan, oparirik ez du egiten eta tantoak ongi bukatzen ditu.

Aipatu bezala, 39 urte ditu Altuna I. goak eta zortzi finalerara iritsi da orain arte. Horietatik bakarra irabazi du, hori dela eta, oraingoa galtzeko pena eman diola zioen.



Abegiren egoitza ikustera eta boluntario gisa izena ematera hurbildu ziren atzo ate irekien jardunaldian. **NEREA URBIZU**

Boluntarioak lortzeko ate irekien jardunaldia Abegin

Tolosa » Egun hamar pertsona ari dira laguntzen etxerik gabekoentzako egoitzan, baina gehiago behar dituztela azaldu dute.

ERREDAKZIOA

Abegi etxerik gabekoen egoitzak 21 urtetik gora daramatza lanean. Atzo, ate irekien jardunaldia egin zuten, jendeak ikus zezan bertan zein lan egiten duten, eta aldi berean, boluntario gisa bertan lan egitera animatzeko.

Jesus Mari Gerra, zentroko arduradunetako batek azalduetakoaren arabera, «egunero bi lagun aritzen dira lanean, baina askotan gutxiegi da, eta hobe da jende gehiago egotea, lasaiago aritzeko». Egoitzakoek luzatutako datuen arabera, hamar boluntario daude orain. Horiek astean iluntze batean joan dira laguntzera. Beraien egin behar nagusia, etxerik gabekoei harrera egitea eta hauei, afaria zerbitzatzea da. Egoitzako boluntarioetako batek azaldu zuenez atzo, ate irekien jardunaldian, «askotan, hona etortzen diren etxerik gabe-

koentzat gauza garrantitsuenetako bat beraiekin hitz egitea da, hau da, norbaitek entzuten diela ikustea».

Hogeita bat urtetik gora lanean

Abegi zentroa 1986an sortu zen. Egun, jateko eta lo egiteko zerbitzua eskaintzen du. Horretarako, bederatzi ohe eta bi sofaz hornituta dago. Laguntza hau jasotzen duenak, gehienez zortzi egun igaror ahal izango ditu zentruan, eta beste hiru hilabete igaro arte ezin izango dute berriro itzuli zentru honetara.

@ Zurea da hitza. Zure herriko albisteen berri eman dezakezu Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako atal honetan. Honez gain, bertan zure kexa eta iradokizunak ere agertu ditzakezu. Beraz, izan zaitzaz kazetari zu ere!

www.tolosaldekohitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zelai taberna
(Berastegi)
alokatzen da
606 74 24 08

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Rodiloa.** Txirindularitzako rodiloa. Deitu 699 60 91 40ra.



Atzo Tolosako Kultur Etxeko prentsaurrekoan, AHT Gelditu! Elkarlana eta atxikimendua eman duten taldeak. N. URBIZU

Hilaren 26an manifestaziora deitu dute «trena eteteko» hainbat elkarte eta taldek

AHT » Komunikabide batzuk abiarazi duten «intoxikazio kanpaina, gogor» salatu nahi izan du AHT Gelditu! Elkarlanak.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak hilaren 26an 17:00etan egin zuten manifestazioa iragartzeko prentsaurrekoa eskaini zuen atzo. Leloa **AHTrik ez! Inposaketarik ez!** izango da eta herritarrei parte hartzeko deia egin zuten, «denon esku baitago hau gelditzea».

Elkarlanekoez gain, atxikimendua erakutsi nahi izan dietenak ere Kultur Etxean elkartu ziren.

«Gogor» salatu nahi izan zuten AHTren aurkako herri mugimendua «kriminalizatu eta proiektu anti-ekologiko eta anti-sozial honen inguruko eztabaida desbideratzeko asmoz zenbait komunikabidek eta agintari politikok abian jarri duten intoxikazio kanpaina».

Hilaren 26aren aurretik beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte; besteak beste, LABek antolatutako auto karabana. Honakoa, hilaren 24ean izango da 11:00etan. Hilaren 25ean, berriz, Tolosako Lanbi-

de Heziketako eskolan (Maestrian) AHT Gelditu! Elkarlanaren wegunearen aurkezpena izango da, eta Tolosako eta Goierriko Elkarlanaren eskutik izango da.

Hainbat talderen atxikimendua

Atxikimendua eman dieten talde nahiz elkarteak hauek dira: Tolosaldeko EAE-ANV, Tolosako Ezker abertzalea, Tolosaldeko ezker abertzalea, Tolosako Aralar, LAB, EHNE, Bilgune Feminista, Euskal Herria Sozialista, Tolosaldeko Gazte Asanbladak, Tolosako Arraun Kluba, Ikasle Abertzaleak, Segi, Alpino, Oargi, Haitzetan

Raju, San Esteban auzo-elkartea, Amarozko antzerki artisaua, Eneko Haritzaren lagunak, Amarotz auzo elkarteko zuzendaritza batzordea, Gazteluko segalarriak, Mulambo afro-samba blokoa eta Angel Navas eta Jon Goikoetxea *Boli* mendizaleak.

Mendi martxa larunbatean

Datorren larunbatean, berriz, Oargi, Alpino eta Haitzetan Raju elkarteek antolatutako mendi martxa izango da. 09:45ean abiatuko dira Tolosako Triangulotik. Bidean, Tolosan AHTk izango lukeen ibilbidea eta «eragingo lituzkeen kalteak» ikusiko dituzte. Jarraian, 14:00etan bazkaria egongo da Oargi mendi elkartearen.

«AHTren onuren» berri

Bestalde, aste honetan Eusko Jaurlaritzak informazio kanpaina bati ekin dio, herritarrei Euskal Y-aren «onuren» berri zabaltzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak www.euskaly.com kanala berritu du eduki gehiago modu errezagoan eskuragarri jartzeko, dohain harpidetzeko boletín elektronikoa bat abian jarri du.

Bide batez, informazio kanpaina bat martxan jarri du *Bal zenekien?* lelopean, irri eta idatzizko hedabide nagusietan iragarriki ipiniz. Horietan, abiadura handiko tren sareak «euskal herritarrei ekarriko dizkien onuren berri» ematen da. Horrekin batera, eskuliburu bat banatuko dituzte Euskal Autonomi Erkidegoko etxebizitzetan.

» EKITALDIAK

- **Hilaren 19an.** 09:45ean Triangulotik mendi martxa abiatuko da. 14:00etan, bazkaria Oargin.
- **Hilaren 24ean.** Auto karabana.
- **Hilaren 25ean.** AHT Gelditu! Elkarlanaren webgune berriaren aurkezpena Maestrian, 11:00etan.
- **Hilaren 26an.** Manifestazioa: *AHTrik ez! Inposaketarik ez!* Triangulotik abiatuta, 17:00etan.

Neguko giroa nabaritu da azokan, jendea beranduago animatuz

Azoka » Mendiola sagarra errezil sagarrei lekua kentzen hasi zaie, eta zuhaitzen garaia ere iritsi da feriara.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen Tolosan. Eguraldia kontra zela, erosle askok beraien bueltaxka berandutu egin zuten, eta goizeko lehenengo orduetan ez zen jende asko egon mahaietan. Goiza aurrera zihoala pixkanaka berotu egin zen giroa, baina salmentak ez ziren urteko onenak izan.

Eskaintzaren aldetik aipatzekoak mendiola sagarrak, errezil sagarren tokia pixkanaka hartzen dihoatzela, barazki ugari postuetan, dena negukoa.

Atari kalean ere arbola asko izan zen atzo, bai fruitarbolak, baita baso espezieak ere. Prezioak joan den urteko berdinak izan zirenetan, dirudienez, izango dira.

» ATZOKO AZOKA

	Merka.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	2,20
Biola	3,00	-

Bertako produktuak

Fruta		
Errezil sagarra	0,80	8,00
Mizpiradia	3,00	-

Barazkiak

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Azenarioa	1,20	7,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04



Aldarriaren aldeko sinadurak

ANOETA » EAE-ANVren aldarriari atxikimendua emateko atzo atera zuten argazkia Anoetan. «Herritar askok sinatu du aipatutako aldarria eta argazki hau ho-

rren erakusle da». Atzo eta duela 15 egun ere sinatu zuten. Aldarriak Euskal Herriaren independentzia defendatzen du. HITZA

PR GRG NINI
urtarrilak
18
ostirala
20:30
LEZGOR
TOLOSA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera antolatatu du hilaren 18tik 20ra: ostiralean Lizara aterpetxera joan, igandean Bisaurin mendia igo (2.640 m) eta igandean Bernera mendilerroa igo ondoren itzuliko dira. Izen-ematea, 637830380 telefono zenbakian.
■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarzten du, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara, aurtengo mendi federatu txartela atera daitekeela.
■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian.
■ **Tolosa.** Jabier Villarreal Armenariz *Paralelo 42* argazki montajen erakusketa Aranburun.
■ **Alegia.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren erakusketa Jubila-tuen tabernan. Hilabete osoan zehar izango da bere zeramika lanak ikusteko aukera asteartetik igandera bitarte.

Zinema

■ **Leitza.** Frank Oz zuzendariaren *Un funeral de muerte* filma ikusgai, zinemaren, 19:30ean.
■ **Tolosa.** *Soy leyenda* filma, Leidor aretoa, gaur 19:30ean eta bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean.
■ **Villabona.** *Soy leyenda* filma, Gurean, gaur 19:30ean, eta bihar (ikuslearen eguna) 21:30ean.
■ **Villabona.** *Movida bajo el mar* gaztetxoentzako filma gaur, Gurean, 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.
BIHAR
■ **Ibarra.** Ugarte, MT. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Larraul, Asteasu, Aduna eta Zizurkilgo 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak azken asteburuetan ekingiza desberdinak ari dira egiten elkarrekin. Eskaladan eta mahai jokoetan aritu ziren atzo.

... eta asteburu honetan aisian

NEREA URBIZU

Gaur egun, 12 eta 16 urte bitartekoek ez dute aukera handiegirik elkarrekin egoteko, eskolan ez bada, arrazoi desberdinak arengatik. Kaxkagor elkartearen eskutik eta Larraulgo, Zizurkilgo, Asteasuko eta Adunako Udalen eskutik.

Atzo jardumaldi ezberdinak ziren Asteasun eta Zizurkil. 12 eta 16 urteko gaztetxoak izan ziren protagonista nagusiak, azken asteburuetan bezala, bigarren eskuko azokak ere egin baitituzte. Atzo, berriz, aisialdia izan zen nagusiki. Asteasun, goizean, eskalatzeko aukera izan zuten Izaro eta Lurdesen laguntzaz (Kaxkagorrekoak).

Arratsaldean, berriz, Zizurkil, Atxulondon elkartu ziren lau herrietako gaztetxoak: bertan, filmak, dantza eta mahai jokoak egin zituzten. Elkarrekin barre eta hizketa andana egin zuten: besteen artean, hori da helburuetako bat, elkartzea, eta eskolatik kanpo ere harreman hori egotea eta egitea. Kasu honetan 15 bat gaztetxo ibili ziren.

Mendi ibildia asteburuan

Datorren asteburuan inguruko mendiak ezagutzera joango dira, «ondoan dauden altxorak ezagutzera». Izan ere, dirurik gabe ere gauzak egin daitezke.

Aurrekoan ere Txuri Urdinera joan ziren eta bertara trenez joan ziren. «Gehienak ez ziren trenez inoiz ibili eta txartela haiek beraiek erosi behar izan zuten, eta ikusi zuten zenbat balio duen». Modu honetan autonomia gehiago hartuz doaz gazte hauek, etorkizuneko biztanle hauek.



Goizean Asteasuko kiroldegian eskalatzeko aritu ziren. N. URBIZU



Dantza, zinema eta mahai jokoak egin zituzten arratsaldean, Atxulondon. N. URBIZU

A Agurrak



Zorionak!

Eloy Iglasias (Ibarra). Bihar 11 urte. Zorionak arreba Zuriñe eta Ireber eta Saigots lehengusuen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak